

# Baionako ur zikinak garbitzeko lantegi modernoa inauguratu du BAM distrituak

Inguramena babesteko hiru urteko konbenioa izenpetu du Alain Lamassourek

**E**uropako araudiei jarraikiz, Baiona-Angelu-Miarritze distritua (BAM) egokitzten ari da hondakinen eta uren tratatzeko azpiegitura. Baionako ur zikinaren tratatzeko lantegi modernoa inauguratu dute atzo. Antzeko obrak egingen dira Miarritzen eta Angelun.


Lutxi Fourcade / Baiona

ALAIN LAMASSOURE BAM distrituaren lehendakariak atzo adierazi zuen «historian sartuko» dela zabortegien eta ur zikinak tratatzeko lantegien estrealndiak eginez segituz gero. Izan ere, azken urteotan distrituak obra ugari egin ditu inguramena babesteko. Miarritzeko Udalak eman zuen abiamena euriteen urak biltzeko sistema asmatuz. Era berean, zabortegian biltzeko politika eraberritu zuen Lamassourek, hondakinen bereizketa abiatuz hiru herritan.

Ildo berari jarraikiz, Baionako ur zikinaren tratatzeko lantegi modernoa estreinatu du BAM distrituak atzo. Lantegia San Frederic auzoan da, hots, lantegi ohiaren toki berean. Eraikuntza zaharra bota zuten joan den urtean eta OTV taldeak eraiki du egitura egokiago bat. Hain zuzen, bi helburu nagusi finkatu zituen distrituak: ur gehienak tratatzea eta uren kalitatea hobetzea. Alain Lamassourek azpimarratu zuenez, kalitate handiko lana egingo da, behar gero eta handiago erantzuteko.

**Teknika modernoak** • Lantegiak tratatuko ditu Baionako ur zikin gehienak, baita Hiriburuko urak ere. Oro har, 55.000 biztanleren ur zikinaren tratatzeko ahalmena izanen du. «Hiru urtez urrats garrantzitsua egin dugu», oroitu zuen Jean Grenetek, Baionako auzapezak. Hain zuzen, ur zikinaren %25 tratatu ziren 1995ean. Lantegi honi esker, orain uren %55 garbituko dira. Are gehiago, lehengo sistemak erabiltzeko ordeztu. OTV taldeak teknika modernoak erabiliko ditu. Ekoizpen kimiko gutxi erabiliko dira, eta ondorio latz gabekoa izanen da auzoan (usainik eta harrabotsik gabeko lantegia). Gurinen tratamendu berezia ere egingen da. Egun guziz lantegiak tratatzen ahalko ditu 11.000 metro kubiko ur eta ahal handiagoak izanen ditu euriteak direnean.

BAM distrituak 44 milioi liberako inbertsioa egin du lantegi moderno izateko (1.100 milioi pezeta). Alabaina, ez du oraindik lokatzen arazoa trenkatu. Egun guziz, 5,5 tona lokatz aterako dira lantegitik. Eta, proiektuaren bultzatzaileek adierazi zuten, baliatuko dira laborantzian. Alta, bada, behin-behineko aterabidea izanen dela berretsi zuten.



Atzo egin ekitaldiaren une bat.

JACOBA MANTEROLA

## Distritu berdearen bidean

LANTEGI BERRIA estreinatzeaz gain, Alain Lamassourek eta Guillaume Fauresek, Adour Garonne Ur Agentziako zuzendariak, auzotegi kontratu bat izenpetu dute atzo. Hiru urteko konbenioa izanen da, eta, horren arabera, bi egiturek egingo dute 390 milioi liberako inbertsioa (9.750 milioi pezeta) uren kalitatea hobetzeko distritu osoan. «Helburua bikoitza da: baliatuen baldintzak eta

arrainen bizigunea hobetzea», esan zuen Fauresek. Lehendabizi, ibaietara isurtzen diren ur zikin guztiak tratatu beharko dira. Era berean, euriteen urak biltzeko sistemak eraikiko dira kostaldeko hiru herritan, baita lur azpiko urak biltzeko ere. Datoren hiru urteetako obra handienak izanen dira distrituko isurbideak eraberritzea eta hedatzea, lokatzen tratatzeko lantegia eraikitzea eta euriteek eragiten di-

tuzten urak tratatzeko sistema berria asmatzea.

Ur Agentziak benetako desafioa finkatu du geroari begira, eta 267 milioi libera eskainiko ditu programa zabal bideratzeko. Lehen kontratua izenpetu zuen 1993an, eta hainbat kutsadura arazo konpondu zituen. Alabaina, lan anitz gelditzen dela azpimarratu zuen Fauresek. «Nahiz eta ur zikinaren garbitzeko indarrak egin, itsa-

soko urak nahiko zikinak dira, eta egoera okertzen da hondartza batzuetan», oroitu zuen. Kontratu berriari esker, Ur Agentziako lehendakariak uste du kutsadura handiena desagertuko dela hiru urte barne. Alabaina, ur kalitateak prezio bat izanen duela azpimarratu zuen Lamassourek. Hiru urte barne, uraren prezioa goratuko da distritu osoan, 4,55 liberatik 6,05era metro kubikoa. X

JACOBA MANTEROLA



## 'Egin'-en lekukoa hartu du 'Gara' egunkari berriak

Egin egunkariko lekukoa hartuko duen Gara egunkari berriaren aldeko festa egin zuten igandean Donostiako belodromoan. Milaka eta milaka pertsonak mukuruko bete zuten belodromoan. Festan kantari, bertsolari eta artista ezagunak hartu zuten parte, proiektu informatibo berriari elkartzuna adierazteko; besteak beste, Mikel Laboak, Enrique Morentek, Luis Llachek, Andoni Egañak, Evaristok, Drogasek... Ekitaldiko unerik hunkigarriena izan zen Egin egunkariko zuzendari Jabier Salutregik jaiotzean dagoen Gara egunkariko zuzendari Mertxe Aizpuruari lekukoa eskaini zionean.

Tratu txarrei buruzko hitzaldiak ireki ditu UEUko Donostiako jardunaldiak

■ Kriptografiaz mintzatuko da gaur Mikel Aramendi

Erredakzioa / Donostia

ATZO arratsaldean hasi ziren Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako Donostiako XIV. jardunaldiak. Doctor Camino liburutegian izango dira hitzaldi saioak.

Aktualitatearekin estuki lotua dagoen gai bati buruzko mintzaldiak zabaldu zuten atzo egitaraua: etxe barruko tratu txarrei buruzko hitzaldiak, hain zuzen ere.

Lucia Arzuaga abokatuak gogora ekarri zuen aspaldi-aspaldiko arazoa dela tratu txarrena, nahiz eta badirudien agintariak orain jabetu direla haren larritasunaz. Hortik abiatuta, zein aldaketa legal proposatu diren eta zer aldatu beharko litzatekeen azaldu zuen Arzuagak.

Gaur, berriz, Kriptografia eta gizarte kontrolaz mintzatu du Mikel Aramendi. Estatu aurreratuaren kriptografia digitala erabiltzaile arruntaren eskueran ipini da, baina gero eta ugariagoak dira tresna hori kontrolpean edo legez kanpo jartzeko saioak. Horretaz guztiaz ariko da gaur Aramendi kazetaria arratsaldeko 19:30etan.

Bihar, Iñigo Santxo abokatuak Euskal Selektzioaren gaineko hausnarketa juridikoa egingo du. Besteak beste, gaur egungo marko legalak selektzio nazionala lortu ahal izateko aukerarik ematen duen aztertuko du.

Jardunaldietako laugarren eta azken hitzaldia abenduaren 9an egingo da. Juan Mari Beltran, Hernanin herri soinu-tresnen irakaslea da bera, herri musikaren txokoa egiteko duen proiektuaz mintzatuko da. X